



II. ATALA ERRAMUN BAXOKEN OMENEZKO AITORTZAK

>>>

5

ERRAMUN BAXOK EUSKALTZALEARI AITORMENA

Maria-Jose Azurmendi

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)

Helbide elektronikoa: ehu-azurmendi@telefonica.net

Aitormenean sartu baino lehen, nire **zorion beroenak** eman nahi dizki-
zuet, zuri eta emazteari ere, Euskararen eta Euskal Herriaren alde orain
arte bete duzuen ibilbide luze, aberatsa eta etengabeagoatik, zu Erra-
mun aurten 80 urte betetzen dituzula aprobatxatuz.

Aspaldidanik lagunak, Erramun, Québec-en 1980an lehenbiziko
aldiz elkar topatu ginenetik: Laval Unibertsitateko CIRB (Centre Interna-
tional de Recherche sur le Bilinguisme) erakundean ezagutu ginen,
gehienbat beraiegangandik (Mackey, Gendron, Hamers, ...) ikasiz, baina
baita ere Euskararen egoera irakatsiz, bertan antolatzen ziren mintegietan
parte hartuz, horrela harreman elkarreragile aberatsak ziren denontzako.
Garai hartan, Québec zegoen aldaketa eta eraberritze egoera bizian, oro-
korrean eta bereziki hizkuntza arloan, gizarte osoaren parte-hartzearekin:
instituzio ofizialak izan edo erakunde sozialak izan, erakusgarria bene-
tan guretzako. Nik gertuagotik ikusi nuen Unibertsitatearen protagonis-
moa egoera eferbeszente hartan, baina zuk ikuspegi nahiko zabalagoa
zenuen, han bertan bizi eta lan egiten zenuelako, eta zu ere neurri batean
protagonista izan zinela. Zenbait gauza ikasi genuen han, gero Euskal
Herrian aplikatzeko asmoarekin: gogoratzen al zara? Zu irakasle zinen
Québec probintzian, eta askotan etortzen zinen CIRB erakundera, berta-

ko mintegietan parte hartuz; nik ere bertako mintegietan parte-hartzen nuen, horrela gure artean topo egin eta ezagutuz. Zuk agian asko ikasiko zenuen mintegi horietan, baina ziur egon nik asko ikasi nuela; gainera, nik badut zer eskertu Québec-eko Unibertsitateari, besteak beste bertan lauhi-lekoan egoteko dirulaguntza eman zidalako eta bertan neurri handian burutu nuelako ere nire doktorego tesia, W. Mackey irakaslearen laguntzarekin, gero Unibertsitate Complutensean 1982 urtean aurkeztu nuena. Niretzako lagun ona izan zinen han, eta zenbait gauza zuzenean zuregandik ere ikasi nuen, horrela ba nire **esker onak** ere eman nahi dizkizut.

Gerorago, berriro ere topo egin dugu Euskal Herrian, zenbaitetan. Adibidez, nazioarte testuinguruan: 1) Fishman soziolinguistik eskatutakoari erantzunez, “Reversing Language Shift: The Case of Basque” (Fishman, 2001) kapituluaren parte hartu genuelako; 2) baita gerorago, berriro ere Fishman ikerlariak eskatuz, berak zuzentzen duen aldizkari soziolinguistikarako *IJSL*, 174 (Fishman, 2005) zenbaki monografikoa Euskal kasuari eskaintzerakoan, parte hartu genuelako.

Baina aipagarriena, eta orain interesgarriena, zure bizitza aberatsa aipatzea da. Nik azpimarratuko nuke zure euskaltzale ibilbide luzea, aberatsa eta aipagarria, zure biografian adierazten dena kontuan hartuz: 1) zenbait urtetan Québec-en ondo bizi eta gero, Euskal Herrira etortzen zarete, 1980 hamarkada hasieran, indarrez eta egitasmoz beteta: euskaltzaleatasuna orokorrean, eta Euskara bereziki, bultzatu nahian; 2) behin etorrita, zenbait egitasmo sortu eta/edo indartu dituzu, mota eta maila ezberdinetakoak, ofizialagoak batzuk eta herrikoiagoak besteak, gehienetan modu nekezean, baina hala ere etengabe. Nire ustez, Iparraldeko euskalgintzaren eta Euskararen gaurko egoeraren alderdi onenak neurri handian zure parte hartzearen esker lortu dira. Ibilbide hau ulertzeko modu egokia iruditzen zait zure eta zuen Euskal-identitate sakona aipatzea, identitatea bakarrik agian nahikoa ez bada ere, identitatea beharrezkoa delako.

Horrela, arrazoi ezberdinak ditut zu gogoratzeko eta zoriontzeko, zure 80 urtebetetzea ospatzerekoan: 1) orokorra dena, lehen aipatu bezala euskaltzale aktibo izan eta zarelako; 2) berezia dena ere, niri *BAT Soziolinguistika Aldizkaria* honen zuzendaria eta partaidea izatearen esperientziak laguntzen didalako zure biografiako zenbait alderdi hobeto ulertzen eta baloratzen, adibidez zenbait egitasmoen sortzaile, zuzendari eta partaide izan zarelako; 3) baita pertsonala dena ere, besteak beste elkarrekin euskaltzale aktibo moduan ibiliak garelako. Guztiagatik, nire eta gure (euskaltzaleok) **zorionak eta eskerrak!** Orain arte bezala jarraitzea, luza-ro, espero dut eta dugu, Erramun!

Zure omenaldia ospatzeko, *BAT* aldizkariak eskaintzen dizun 67. zenbakian parte hartu nahi dut artikulu batekin ere. Horretarako, zuk ere landu duzun ildo (Baxok eta al., 2006) jarraituz, ez al zaizu egokia iruditzen identitateari buruz, edo hobeto euskal identitateari buruz, berriro ere

Aspaldidanik lagunak, Erramun, Québec-en 1980an lehenbiziko aldiz elkar topatu ginenetik: Laval Unibertsitateko CIRB (Centre International de Recherche sur le Bilinguisme) erakundean ezagutu ginen, gehienbat beraiegandik (Mackey, Gendron, Hamers, ...) ikasiz, baina baita ere Euskararen egoera irakatsiz.

***Baina aipagarriena, eta
orain interesgarriena, zure
bizitza aberatsa aipatzea
da. Nik azpimarratuko
nuke zure euskaltzale
ibilbide luzea, aberatsa
eta aipagarria, zure
biografian adierazten
dena kontuan hartuz.***

mintzatzea?: hauxe da ba aukeratuko dudan aztergaia. Artikuluan parte hartuko duten beste ikerlariak ere Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak dira: moduren batean edo bestean hirurok identitatean adituak. Agian artikuluan esango ditugunak baliagarriak izan daitezke ere zure ibilbidea hobeto ulertzeko!■

AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

- Azurmendi, M.-J., Bachoc, R. & Zabaleta, F. (2001). Reversing Language Shift: The Case of Basque. In: J.A. Fishman (ed.), *Can threatened languages be saved? Reversing Language Shift, Revisited: A 21st Century Perspective*. Clevedon: Multilingual Matters.
- Baxok, E., Etxegoin, P., Lekunberri, T., Martinez de Luna, I., Mendizabal, L., Ahedo, I., Itzaina, X. & Jimeno, R. (2006). *Euskal nortasuna eta kultura XXI. Mendearen hasieran/Identidad y cultura vascas a comienzos del siglo XXI/Identité et culture basques au début du XXIème siècle*. Donostia/San Sebastián: Eusko Ikaskuntza/Sociedad de Estudios Vascos/Société d'Etudes Basques.
- Legarra, J.M. & Baxok, E. (2005). Language policy and planning of the status of Basque, II: Navarre and the Nord Basque Country. *International Journal of the Sociology of Language (IJSOL)*, 174: *The Case of Basque: From the Past toward the Future* (Issue Eds.: M.-J. Azurmendi & I. Martinez de Luna).